



Gradu Amaierako Lana  
Fisioterapiako Gradua

# Desentrenamenduaren eragina adinduen funtzionaltasunean eta parametro fisiologikoetan

Entrenamendu gidatuaren geldialdia

Egilea /Autor:

**Leire Abaroa Romero**

Zuzendaria / Director/a:

**Iraia Bidaurrezaga Lopez de Letona**

© 2017, Leire Abaroa Romero

<http://es.creativecommons.org/blog/licencias/>



## LABURPENA

**Sarrera:** Adinduen kopurua hazten ari da azken urteotan eta honek suposatu ditzakeen ondorioak kontutan hartu behar dira, besteak beste, hauen bizitza kalitatea. Horretarako, zahartzaroan gertatzen diren aldaketak ezagutu behar dira, hala nola, indar eta funtzio galera eta zentzumenen eta nerbio sistemaren narriadura. Indarra eta oreka mantentzea garrantzitsua da adinduetan, egoera funtzionala mantentzen laguntzen duelako eta erorketak saihesten direlako. Independentzia mantentzeko aldizkako ariketa fisikoa egitea garrantzitsua da, entrenamendu aerobiko eta indar entrenamenduaren konbinaketa. Ikerketa honen helburua adindu talde batean urte betez gidatutako ariketa fisiko programa bat jarraitu ostean 3 hilabeteko geldialdiak adinduen funtzionaltasunean eta parametro fisiologikoetan sortzen dituzten ondorioak aztertzea da.

**Metodologia:** Berrogeita hamazazpi adinduk, 64 eta 89 urte bitartekoak, parte hartu zuten ikerketan, zortzi subjektu ikerketatik kanpo utziz, geldialdiaren osteko neurketetara ez bertaratzegatik. Jarduera fisiko programa egunean ordu betekoa izan zen, astean 2 eta batzuk 3 aldiz, Urritik Ekainera arte. Programan oreka dinamiko eta estatikoa, malgutasuna, indarra, erreakzio denbora eta koordinazioa lantzen zituzten. Neurketak ariketa fisiko programaren bukaeran, Ekainean, eta hurrengo ikasturtearen hasieran, Urrian, egin ziren. Egoera funtzionalaren neurketak egiteko Senior Fitness Test-eko proba batzuk erabili ziren, antropometriako datuak ere hartu ziren eta Minnessota galdeketa pasatu zitzairen.

**Emaitzak:** Entrenamenduaren bukaerako eta desentrenamenduaren osteko emaitzak aztertu ostean oreka dinamikoari dagokion proban soilik aurkitu ziren desberdintasun adierazgarriak ( $p < 0.001$ ), beste probetan desberdintasun adierazgarririk aurkitu ez zirelarik.

**Ondorioak:** Nahiz eta adinduak aktibo mantendu, oreka lantzen duten ariketa espezifikoak egitea garrantzitsua da, entrenamendu aerobikoa soilik eginez ez baitira orekaren emaitzak mantentzen.

## **AURKIBIDEA**

<b>1.SARRERA.....</b>	<b>3</b>
<b>2.METODOLOGIA.....</b>	<b>6</b>
<b>2.1.Lagina.....</b>	<b>6</b>
<b>2.2.- Protokoloa.....</b>	<b>7</b>
<b>2.3.-Materiala eta probak.....</b>	<b>7</b>
<b>2.4.- Analisi estadistikoa.....</b>	<b>10</b>
<b>3.- EMAITZAK.....</b>	<b>10</b>
<b>4.- EZTABAIDA.....</b>	<b>11</b>
<b>5.-ONDORIOAK.....</b>	<b>15</b>
<b>6.- BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>16</b>
<b>7.- ERANSKINAK.....</b>	<b>23</b>

## 1. SARRERA

Azken urteotan, hainbat ikerketa eta biltzar egin dira zahartzaroaren fenomeno mundiala aztertzeko (de Oca, 2003). Izan ere, dagoeneko agerian dagoen aldaketa demografikoari kontutan hartuta, autore desberdinek aurrean dute jaiotako ume bakoitzeko bi adindu egongo direla munduan 2050. urtean, honek hainbat ondorio ekarriko dituelarik (United Nations. New York: UN, 2005). Besteak beste, bizitza kalitatearen jeitsiera, estatuak dependentzia arloan diru gehiago erabiltzea, ume gutxiago egongo denez hezkuntzarako diru gutxiago erabiltzea, osasun sistema publikoan gastu handiagoa egin behar izatea eta aurrerapen politiko, kultural eta ekonomikoaren atzerapena (Pérez Díaz, 2005).

Aldaketa demografikoa dela eta, alde batetik, garrantzitsua da zahartzaroan gertatzen diren aldaketak ezagutzea eta ulertzea, hala nola, muskuluen indar galera, funtzionalitate galera (Geirsdottir, et al., 2015), narriadura sensorialak, emozionalak eta kognitiboak (Dorantes-Mendoza, et al., 2007). Beste alde batetik, hauek izan ditzaketen ondorioak zeintzuk diren jakitea ere beharrezkoa da. Horrela, ikusi egin da heltze-indarra 25 urtetik 79 urtera bitartean erdira jaisten dela, indar galera hau gaixotasunaren iragarle ona delarik (Campbell, et al., 1973). Zehazki, adinarekin ematen den muskulu masa eta indarraren galerari sarkopenia deritzo. Hainbat faktorek hartzen dute parte galera honetan, hala nola, faktore genetikoak eta ingurumenekoak (Roubenoff, 2000). Gainera, zahartzaroan ematen den muskuluen indar galerarekin batera artikulazioen prozesu degeneratiboek adinduen lokomozioa murrizten dute (Boss, et al., 1981) eta erresistentzia eskasarekin, ibilera abiadura motelarekin eta aktibitate ezarekin erlazionatuta daude (Landi, et al., 2012). Indarrarekin batera oreka ere beharrezkoa da eguneroko bizitzako jarduerak egiteko eta independente jarraitzeko (Baradah, et al., 2004; Watelain, et al., 2000). Izan ere, sistema muskuloesketikoaren eta sensorialaren arteko interakzioa beharrezkoa da oreka mantentzeko (Borah, et al., 2007).

Besteak beste, gaitasun desberdinen murrizketak, indar eta oreka galera esaterako, adinduen erortzeko arriskua handitzen dute. Hain zuzen ere, sarkopenia erorketen arrisku faktore garrantzitsuenetarikoa dela ikusi da. Horrela, adinduetan erorketen prebalentzia %30-ekoa da eta, garrantzitsuagoa, erorketek erikortasuna eta ezintasuna handitzen dutela ikusi da (Landi, et al., 2012). Gainera, nahiz eta erortzen diren adindu gehienek ez duten hospitalizaziorik behar, menpekotasun psikologikoa sor daiteke, erortzeko beldurra dela eta (da Silva Gama, et al., 2008).


Beldur honen ondorioz, adinduaren eguneroko aktibitatea murrizten da, sarkopenia areagotuz eta ondorioz oreka falta handituz (Baradah, et al., 2004).

Autore desberdinen arabera adinduen helburu nagusia independentzia mantentzeko gai izatea izan beharko litzateke, (Gill, et al., 1999) ezintasuna eta menpekotasuna pronostiko txar baten iragarleak direlako (Rozzini, et al., 2005). Ezintasuna, normalean, gaixotasunen ondorioz agertzen da, adindua hospitalizaziora bultzatuz eta funtzionalitate galera sortuz (Asmus-Szepesi, et al., 2011). Era berean, ikusi egin da arlo ekonomikoak, gizartekoak eta ingurumenekoak erlazioa dutela desgaitasunean eta, ondorioz, funtzionaltasunean (Colón-Emeric, et al., 2013).

Aipatutako guztia dela eta, adinduetan aldizkako ariketa fisikoa egitea garrantzitsua eta onuragarria dela ikusi dute autore desberdinek, besteak beste, gaixotasun batzuk prebenitzen laguntzen duelako (Toraman, 2005). Zahartzaro normalarekin emandako galera funtzional eta fisiologikoak prebenitzeko, erresistentziazko entrenamendua egitea gomendatzen da (Henwood, et al., 2008). Entrenamendu aerobikoari indar entrenamendua gehitzean, aktibitate bat egiteko behar den energia kopura jeisten da, horrela eguneroko bizitzako aktibitateak egiteko erraztasuna azalduko da, bai eta indarraren ahalmen handiagoa ere (Hunter, et al., 2004). Indar entrenamendua eta entrenamendu aerobikoa konbinatzeak onura gehiago ekartzen ditu entrenamendu aerobikoa soilik egiteak baino. Gainera, neurrizko entrenamenduak intentsitate baxuko entrenamendu programak baino onura gehiago ematen ditu denbora luzera begira, nahiz eta denbora laburrera biak onura antzekoak eman (Colcombe, et al., 2003). Osasuntsu dauden adinduetan neurrizko jarduera astean 5 aldiz eta 30 minutuz egitea gomendatzen da; edo astean 3 aldiz intentsitate handiko jarduera egun bakoitzean 20 minutuz. Indartze muskularra astean 2 aldiz egitea gomendatzen da, pisuak erabiliz, 8-10 ariketa eginez eta muskulu talde handienak entrenatuz (Nelson, et al., 2007; Haskell, et al., 2007).

Ikerketa batzuen arabera, desentrenamenduaren ostean dagoen indarra handiagoa izango da entrenamendua hasi aurretiko aldian baino, baina ez da entrenamenduaren aldian bezain handia izango **1. Irudia** (Lemmer, et al., 2000; Tokmakidis, et al., 2009). Beste autore batzuek ikusi dute entrenamenduaren lehenengo urtean indarra irabazten dela, eta bigarren urtean, entrenamenduarekin jarraituz gero, indar hori mantentzen dela, (Porter, et al., 2002). Era berean, autore desberdinek ikusi dute zenbat eta entrenamenduaren bolumena handiagoa izan muskuluaren masa eta indar galera txikiagoa dela (Tokmakidis, et al., 2009). Gainera, adindu gazte eta adindu zaharren artean aldaketak nabaritzen dira, alegia, adindu zaharretan desentrenamenduaren eraginak 2 astera ikusten diren bitartean adindu gazteetan sei astera ikusten dira (Toraman, et al., 2005). Gainera,

entrenamendua intentsitate altuan egiteak desentrenamenduaren indar galeraren eraginak atzeratzen ditu, entrenamendua utzi eta 12 hilabetera agertuko direlarik eragin hauek; aldiz, intentsitate baxuan entrenatzean 8 hilabetera agertzen dira (Fatouros, et al., 2005).



**1. Irudia:** Belauneko hedatzaileak (a), flexioak (b) indar muskularra [errepikapen maximo bat (1-RM)] izter erdiko zeharkako ebaketa area (CSA); c) intentsitate altuko jarduera taldea (HI) eta neurrizko intentsitateko jarduera taldea (MI) 12 asteko indar entrenamendua jaso eta 12 asteko desentrenamendu aldiaz jarraitua (batazbestekoak eta desbiderapen estandarrek). <sup>a</sup>p<0.05 aurre-entrenamenduarekiko desberdina, <sup>b</sup>p<0.05 post-entrenamenduarekiko desberdina, <sup>c</sup> neurrizko jarduera taldearekiko desberdina. Moldatuta Tokmakidis et al., 2009.

Aipatutako guztia kontutan hartuta, ikerketa honen helburua ikasturte batez ariketa fisiko programa baten parte hartzen zuten adinduen funtzionalitateak eta parametro fisiologikoak 3 hilabeteko udako geldialdiaren ostean jasaten zuten aldaketa aztertzea izan zen.

## 2. METODOLOGIA

### 2.1. LAGINA:

Berrogeita hamazazpi adinduk parte hartu zuten ikerketan. Hauetatik 11 gizona ziren eta 36 emakumezkoak, 64 eta 89 urte bitartekoak. Ikerketan hasieran parte hartutako subjektu kopurua

57koa izan da, baina desentrenamenduaren osteko probetara bertaratutakoak 49 izan dira. Beraz, 8 subjektu ikerketatik kanpo utzi dira desentrenamenduaren datu-bilketara ez bertaratzeagatik. Subjektuek Getxoko Fadura polikiroldegian mantenimenduzko jarduera fisiko programa bat jarraitu zuten ikasturte batez, hots, Urritik Ekainera arte. Bertan, ordu beteko saio gidatuak burutzen zituzten monitore baten laguntzarekin, batzuk astean birritan eta beste batzuk hirutan. Burututako ariketak **1. Taulan** ageri den saio ereduan ikusi daitezke.

#### 1. TAULA. GIDATUTAKO ARIKETA FISIKOAREN SAIO EREDUA.

Saioaren zatia	Denbora	Ariketak	Lan mota
Beroketa	15 min	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi lerrotan jarrita musikaren bitartez mugimendu ar-tikularrak burutu.</li> <li>• Oinez ibili, korroan, bueltaka. Gorputz-adar desberdinen mugimenduak burutu. Oinez ibili, korroan, bueltaka.</li> <li>• Txalo bat ematean egoera desberdinetan jarri: adibidez, oin baten gainean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oreka estatikoa.</li> <li>• Oreka dinamikoa.</li> <li>• Gorputzaren pertzepzioa.</li> </ul>
Pala jokoa	10 min	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hondartzako palen bitartez ahalik eta pase gehien egin pilota lurrera erori gabe.</li> <li>• Bi eskuekin (ezker/eskubi).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oreka dinamikoa.</li> <li>• Koordinazioa (esk/ezk).</li> </ul>
Zati nagusia	25 min	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lurrean ariketak burutu: abdominalak, lurrean buruz gora egonda hanka tartean baloi bat dutelarik baloia hanka artean estutu, buruz gora hankak gora dituztelarik bizikleta egin.</li> <li>• Oreka ariketak: hanka baten gainean zutik mantendu, sostengu-oinarri desbedinak erabili, pisu aldaketak...</li> <li>• Txaloa ematerakoan jarrera aldatu.</li> <li>• Espalderetan luzaketak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarra.</li> <li>• Oreka.</li> <li>• Erreakzio abiadura.</li> <li>• Malgutasuna.</li> </ul>

Subjektuei ikerketaren inguruko informazioa eman zitzaien (**I. Eranskina**) eta, ondoren, probetan parte hartzeko baimena sinatu zuten (**II. Eranskina**). UPV/EHU-ko Etika Batzordeak ikerketa lan hau onartu egin zuen.

## 2.2. PROTOKOLOA:

Ikerketaren lehenengo zatia 2016-ko Ekainean burutu zen, oraindik subjektuak ariketa fisiko programan zeudela, ikasturtearen bukaeran. Subjektu bakoitzari hitzordua eman zitzaion egun eta

ordu zehatz bat azpimarratuz eta aste betean zehar Fadurako polikiroldegira hurreratu ziren neurketak egitera.

Lehendabizi, bi ikerlariren artean, gela batean antropometriako datuak bildu ziren bai eta tentsioa ere. Ondoren, subjektuek eskuko dinamometría proba (handgrip-a) burutu zuten. Gero, polikiroldegiko frontoian Chair Stand, Arm Curl, 8-Foot Up and Go, Minnesota galdeketa eta 6 Minute Walk proba egin zituzten, hurrenez hurren. Aipatutako Senior Fitness Test-eko 3 probak ikerlari berdinak burutu zituen, galdetegia beste ikerlari batek eta, bukatzeko, 6 Minute Walk proba beste batek.

2016ko Urrian, Ekainean egindako protokolo berdina errepikatu zen. Probak egiteko arropa eroso eta oinetako egokiak ekarri behar izan zituzten.

### **2.3. MATERIALA ETA PROBAK:**

Antropometria: Antropometria datuak hartu zitzaizkien, hala nola, altuera, pisua eta gerri eta aldaka perimetroak. Antropometria neurketa guztiak ikertzaile berdinak egin zituen ISAK-ek (International Society for the Advancement of Kinanthropometry) gomendatzen duen protokoloari jarraituz (Stewart, et al., 2011).

- *Altuera:* Altuera neurtzeko tallimetroa erabili zen (Año Sayol, Barcelona, España). Subjektuek oinak aldakaren ardatzean, besoak deskantsuan ezer oratu gabe eta burua gorputzaren ardatzean jarri behar zituzten.
- *Pisua:* Pisua balantza batekin neurtu zen (Omron BF400, Bartzelona, Espainia). Bi datu hauekin gorputz-masa indizearen kalkulua atera zen.
- *Perimetroak:* Zinta metrikoarekin (Lufkin, Alemania) gerri eta aldaka perimetroak neurtu ziren. Gerrikoa neurtzeko zinta zilborraren paretik pasatu zen, eta aldakakoa neurtzeko femurraren burua erreferentziazat hartu zen.

Esku dinamometria: Handgrip-a goiko gorputz adarraren indarra neurtzen duen gailua da, zeinek emaitza kPa-n adierazten duen (Jamar, Bolingbrook, IL, USA). Ikusi egin da dinamometría proba hau etorkizunean egon daitekeen ezintasunaren iragarlea dela, bai eta mortalitatearena ere (Bohannon, 2001). Subjektuak zutik zeudela dinamometroa esku indartsuarekin hartzen zuten, idazteko eta jateko erabiltzen zuten eskua, alegia. Gainera, besoa zuzen mantendu behar zuten eta eskua gerrialdetik behera. Seinalea ematen zitzaientean ahalik eta indar gehien aplikatzen zuten. Subjektuek bi handgrip proba burutu zituzten eta emaitza hobereana hartu zen kontutan, hau da, indar



gehien egitean azaltzen zena.

Egoera funtzionala: Aztertutako pertsonen egoera fisiko funtzionala baloratzeko, adineko pertsonentzat diseinatutako Senior Fitness Test (SFT) bateriaren zenbait proba erabili ziren (Rikli, et al., 2001). Proba hauek eguneroko bizitzako aktibitateetan nola moldatzen diren erakusten dute: ibilera, zaintza pertsonala eta erosketak egitea, adibidez.

- *Goi eta behe gorputz adarretako indarra*: gorputz adarretako indarra neurtzeko Chair Stand eta Arm Curl probak erabili ziren, hurrenez hurren. Chair Stand-aren helburua behe gorputz adarreko indarra neurtzea da. Horretarako, 30 segunduren buruan eta eskuak bularrean gurutzatuta zituztelarik, aulki batetik altxatu eta jesartzeko egiten zituzten altxaldi kopurua zenbatzen zen. Proba hau egiteko beso gabeko aulkia erabili zen, bizkarraleduna, bai eta kronometroa 30 segundoak neurtzeko. Aldiz, Arm Curl probak goi gorputz adarreko indarra neurtzen du. Horretarako, emakumezkoek 2.27 kg-ko eta gizonezkoek 3.63 kg-ko mankuernak erabili zituzten. Beso gabeko eta bizkarraledun aulkiaren ertzean esertzen ziren, ipurdia barruan zutelarik baina bizkarrak atzealdea ukitu gabe. Proba honen helburua mankuernarekin 30 segundutan ahalik eta altxaldi gehien egitea zen. Honetarako, kronometroa erabili behar izan zen. Subjektuek bi proba hauek (Chair Stand eta Arm Curl) behin bakarrik burutu zituzten, batez ere, beste probetan nekeak eraginik ez izateko.
- *Oreka dinamikoa*: oreka dinamikoa neurtzeko 8-Foot Up and Go proba erabili zen. Horretarako, bizkarraledun baina beso gabeko aulki bat erabili zen. Subjektuak eseritako posiziotik hasten ziren, aulkitik altxatu, 8 oinera (2.44 metro) zegoen kono batera heldu, buelta eman eta berriz eseri behar ziren. Proba honetan segundoak neurtzen ziren kronometro batekin, helburua ahalik eta segundo gutxienean eseritako posiziora bueltatzea zelarik. Subjektuek birritan burutzen zuten proba eta analisirako probaren emaitzarik onena erabili zen, segundo gutxien zituena, alegia.
- *Erresistentzia aerobikoa*: erresistentzia aerobikoa neurtzeko 6 Minute Walk proba erabili zen. Horretarako, sei minututan egindako distantzia neurtu zen, kronometro batekin denbora neurtuz. Lauki zuzen bat irudikatu zen, 45.7 metroraingo luzeera zuena, konoak jarritz ertz bakoitzean. Lauki zuzeneko alde luzeenak 4 x 4.57 metro zuen, eta alde laburrenak 4.57 metro. Konoen artean, 4.57 metrora, marka bat jarri zen zinta isolatzailearekin. Probaren helburua 6 minututan ahalik eta distantzia gehiena egitea zen. Egin aurretik eta ostean eraldatutako Borg eskala pasa zitzaian (Borg, 1982), zeinek lanaren intentsitatea subjektiboki erakusten duen, bai sistema kardiobaskularrarena, disnea neurtzeko, baita muskuluen nekearena ere.

Minnesota galdeketa: Minnesota galdeketa pasatu zitzaien (Ruiz Comellas et al., 2012). Galdeketa honen helburua 50 urtetik gorako pertsonetan azken astean egindako ariketa fisikoa neurtzea da. Zehazki, Minnesota laburra pasa zitzaien, laburra eta erraza delako eta 3-4 minututan egin daitekeelako. Berez, Minnesota galdeketa 6 item kontutan hartzen ditu; horrela, besteak beste, etxeko zereginei eta denbora librean egindako kirolei edo ariketei buruzko galderak jorratzen ditu. Ondoren, jarduera bakoitzari MET kopuru bat egokitzen zaio. Bukatzeko, jarduera hauek guztiak kontutan hartuta subjektuak kontsumitzen duten energia MET-etan kalkulatu da. Kasu guztietan ikerlari bakar batek pasa zituen galdeketa denak.

#### **2.4. ANALISI ESTADISTIKOA:**

Estatistika analisia Excell eta SPSS Statistics (19. bertsioa) programekin egin zen. Kasu guztietan adierazgarritasun estatistikoa  $p < 0.05$ -ean ezarri zen.

Erabili ziren proba estatistikoak hurrengoak dira:

- Estatistika deskriptiboa erabili zen batez besteko balioak eta hauen desbiderapen estandarrek ezagutzeko.
- Entrenamendu eta desentrenamendu momentuetako (Pre eta Post, hurrenez hurren) emaitzen konparaketa egiteko erlazionatutako laginen  $t$  Student test estatistikoa erabili zen.

### **3. EMAITZAK**

**2. Taulak** entrenamendu eta desentrenamenduan neurtutako aldagaiak azaltzen ditu. Hasteko, antropometria eta tentsioaren datuei dagokienez, ez ziren desberdintasun adierazgarriak aurkitu. Hala ere, gerri eta aldaka perimetroa igo zen eta tentsio sistoliko eta diastoliko jeitsi. Senior Fitness Test-ari dagokion probetan, desberdintasun estatistikoak aurkitu ziren 8-Foot Up and Go testan ( $p > 0.001$ ). Beste probetan ez zen desberdintasun adierazgarriak aurkitu, are eta gehiago, proba gehienetan Pre eta Post baloreen arteko ezberdintasuna ez zen puntu bat baino handiagoa izan.

Energia gastuari dagokionez, MET kopuruan ez zen desberdintasun adierazgarriak aurkitu. Dena den, ariketa fisikoa gutxitzeko tendentzia bat antzeman zen, MET kopurua jeitsi baitzen.

2. TAULA. IKERTUTAKO ALDAGAIEN BATAZ-BESTEKO DATUAK ENTRENAMENDUA  
AMAITU ETA DESENTRENAMENDUAREN OSTEKOAK.

ALDAGAIA	N	PRE	POST
		b.b. $\pm$ d.s.	b.b. $\pm$ d.s.
Altuera (cm)	49	159.8 $\pm$ 0.07	159.8 $\pm$ 0.07
Pisua (kg)	49	72.64 $\pm$ 12.99	72.63 $\pm$ 13.02
IMC (kg/m <sup>2</sup> )	49	28.42 $\pm$ 4.58	28.4 $\pm$ 4.57
Gerria (cm)	49	97.63 $\pm$ 10.42	98.98 $\pm$ 11.61
Aldaka (cm)	49	107.55 $\pm$ 11.34	107.71 $\pm$ 11.88
Tentsio sistolikoa (mm Hg)	48	143.75 $\pm$ 19.82	142.98 $\pm$ 18.53
Tentsio diastolikoa (mm Hg)	46	82.24 $\pm$ 9.34	79.33 $\pm$ 8.33
Handgrip (newton)	49	24.97 $\pm$ 8.33	25.36 $\pm$ 6.49
Arm Curl (errepikapenak)	49	17.00 $\pm$ 2.52	17.35 $\pm$ 2.76
Chair Stand (errepikapenak)	49	15.76 $\pm$ 2.72	15.57 $\pm$ 2.97
8-FUandG (segunduak)	49	5.16 $\pm$ 0.85 **	5.42 $\pm$ 0.84 **
6MWT (metroak)	49	513.05 $\pm$ 91.73	530.96 $\pm$ 59.85
Energia gastua hilabetean (MET)	49	11297.10 $\pm$ 3958.13	10620.16 $\pm$ 5934.82
Energia gastua astean (MET)	49	2824.28 $\pm$ 989.53	2655.04 $\pm$ 1483.70

b.b.: batazbestekoa; d.s.: desbiderapen estandarra; 8-FUandG: 8 foot up and go; 6MWT: 6 minute walk test; IMC: indice de masa corporal (gorputz masa indizea); MET: baliokide metabolikoa; PRE: desentrenamendu aurretiko aldia; POST: desentrenamenduaren ondorengo aldia; n: subjektu kopurua  
PRE vs POST \*\*p<0.01

#### 4. EZTABAIDA

Ikerketa honen helburua urte guztian zehar jarduera gidatua burutzen zuen adindu talde batean hiru hilabeteko entrenamenduaren geldialdiak parametro fisiologikoetan eta funtzioaletan zuen eragina aztertzea izan zen.

Emaitzei erreparatuz, ariketa fisikoa gutxitzearen joera ikusten da MET kopurua txikiagoa izan baita. Ez hori bakarrik, behe gorputz adarraren indar galera txiki bat ere nabarmena da geldialdiaren osteko neurketetan. Hala ere, bibliografiaren arabera, adinduetan aktibo mantentzea astean 150 minutuko ariketa fisikoa egitea da, ariketa fisiko hau oinez edo bizikletan ibiltzen burutzen delarik soilik (Organización Mundial de la Salud, 2012). Hain zuzen ere, literaturan zabaldua dagoen moduan, kontutan hartzen da fisikoki aktiboa izatea astean 9 MET-ordu/aste egitea dela (Bea, eta al., 2017). Beraz, gure emaitzek baieztatzen dute nahiz eta entrenamendu gidaturik ez egin, uda

partean adinduak aktiboak izaten jarraitu zutela. Alegia, ikerketan parte hartu zuten adinduek desentrenamendu aldian aurrean aipatutako ariketak egiten zituzten, batez ere ibiltzea izan zelarik burutzen zuten jarduera nagusiena. Hori dela eta, nahiz eta aktibotasuna txikitzearen joera bat egon, emaitzei kasu eginez esan dezakegu ez dela ariketa fisikoaren geldialdi adierazgarririk egon.

Autore desberdinek ikusi dute ariketa fisikoaren areagotzea izter perimetroaren gutxiagotzearekin erlazionatua dagoela (Hughes, et al., 2004) eta, gainera, ariketa aerobikoak zahartzaroan ematen den gihar masaren gutxiagotzearen kontra diharduela (Hughes, et al., 2002). Ikerketa honetan, nahiz eta hasiera batean desentrenamenduak parametro antropometrikoetan aldaketak sortuko zituela pentsatu (adibidez, pisua eta GMI baloreak igo) ez da emaitza adierazgarririk aurkitu. Beraz, ariketa fisiko programaren geldialdiak ez du eraginik izan arlo honetan. Gure emaitzen antzera, Drøyvold eta lankideek (2004) burututako ikerketan ere ariketa fisikoaren ondoriozko gorputz masa-indizearen (GMI) aldaketa aztertu zuten. Bertan ikusi zuten 11 urteren ondoren ariketa fisiko moderatua egin zutenek GMI berdina mantentzen zutela. Nahiz eta autore batzuek ikusi duten ariketa fisikoa egitearen eta GMI-aren jaitsieraren arteko erlazioa argia dela, alegia, ariketa fisikoa egitean GMI-a jaisten dela (Sui, et al., 2013), beste autore batzuek ondorioztatu dute ibiltzeak eta etxeko zereginak egiteak ez duela muskulu masaren galera prebenitzen baina gorputzeko pisua mantentzen laguntzen dutela eta, gainera, 3 asteko desentrenamenduaren ostean oraindik ariketaren onurak ikusten diraela antropometriari dagokionez (Kyle, et al., 2001; Vaquero-Cristóbal, et al., 2014 ). Beraz, guk desentrenamendu moduan markatutako aldian (hiru hilabete) oraindik aktibo izaten jarraitu zutenek, antropometriako aldagaiak mantentzeko gai izan zirela ondoriozta dezakegu.

Ariketa fisikoa egitean osasunean onura handiak agertzen dira, tentsio arterialean arazoak dituzten subjektuetan batik bat (Wilmore, 2001). Izan ere, ariketa aerobikoa egitean tentsio arteriala jaisten da (Whelton, et al., 2002). Horrela, Young eta lankideek (1999) ikusi zuten ariketa aerobikoa egiten zuen talde bat eta oreka ariketak egiten zituen beste talde bat konparatzean, bi taldeen tentsio arteriala jaisten zela. Dena den, literaturan emaitza desberdinak agertzen dira gai honen inguruan. Izan ere, erresistentziatzko ariketa fisiko arinaren ondoren, ibili ostean, alegia, tentsio diastolikoaren jeitsiera ikusi egin da baina, ez ordea, sistolikoarena (Murphy, et al., 2007). Bestalde, Locks eta lankideek (2012) erresistentziatzko entrenamendua jaso zuten adinduetan, sei asteko entrenamenduaren ondorengo lau asteko desentrenamendu aldian tentsio arterialaren igoera nabarmentzen zuten. Bitartean, beste ikerketa batean non subjektuek erresistentziatzko eta intentsitate altuko entrenamendu interbalikoa bateratzen zuten, tentsio sistoliko eta diastolikoaren desentrenamenduaren ostean jaitsi egiten zela ikusi zen (Bruseghini, et al., 2015). Ikerketa honetako emaitzetan tentsio sistoliko eta diastolikoaren beherakada xume bat ikusi daiteke. Jaiste horren

zergatia aktiboak izaten jarraitu zutela izan daiteke. Jakina den moduan ariketa fisikoak efektu hipotentsorea dauka (Queiroz, et al., 2010) eta ariketa fisikoa egin eta 48 ordura oraindik efektu hori ikus daiteke. Ikerketa honetako adinduak aktiboak izan zirenez, tentsio arterialari dagokion emaitzetan ariketa fisikoaren efektu hipotentsorea ikusi daitekeela ondorioztatu dezakegu.

Indarrari eta potentziari dagokionez, autore batzuen arabera, 6 aste eta 24 asteko desentrenamenduaren ostean indar eta potentzia galera dago (Carvalho, et al., 2008; Kalapotharakos, et al., 2007; Taaffe, et al., 2008). Are eta gehiago, beste autore batzuek ikusi dute nahiz eta indarraren entrenamenduak muskulu masa eta potentzia handitzen dituen, entrenamendua 6 astez gelditu ezker irabazitako indarra galdu egiten dela (Kalapotharakos, et al., 2007). Era berean, indar-erresistentzia entrenamendua egiten zuten adinduak aztertzen duen ikerketa batean lau asteko desentrenamenduaren ostean adinduak entrenamendu aurretiko baloreetara bueltatzen zirela baieztatzen du (Lovell, et al., 2010). Aldiz, beste autore batzuen arabera indarra mantendu egiten da galera handiena flexibilitatea bezalako beste faktore batzuetan ematen delarik (Seco, et al., 2013). Izan ere, Lexell eta lankideek ikusi zuten adinduen entrenamendu maiztasuna astean 3 aldiz egitetik astean behin egitera jeistean indarrean hobekuntzak ikusten jarraitzen zirela (Lexell, et al., 1995). Ildo bera jarraituz, nahiz eta entrenamendu gidatua ez egin, ikerketa honetako adinduak aktibo izaten jarraitu zuten 3 hilabeteko geldialdian zehar. Hain zuzen ere, badirudi ibiltzea bezalako jarduera sinplea egiteak sistema guztietan eragina duela eta indarra mantentzen ere laguntzen duela (Bassey, et al., 1988; Seco, et al., 2013). Beraz, nahiz eta Chair Stand datuetan indar galera txiki bat nabarmena izan, udan ibiltzera joateak indar mailak mantentzen lagundu ziela esan dezakegu.

Desentrenamendu aldian egindako ariketa fisikoa batez ere ibiltzea izan zela kontutan izanda, emaitzetan 6MWT-aren hobekuntza ikustea logikoa da. Entrenamendu aldian ez bezala, non ariketak orekara eta indarrera bideratuago zeuden, desentrenamendu aldian burutzen zituzten ariketak, batez ere, aerobikoak izan ziren. Dena den, 6MWT proban zehar adinduak ez ziren monitorizatuak izan. Etorkizuneko ikerketetarako gomendagarria izango litzateke pultsometro bidez proba honen monitorizazioa. Izan ere, modu honetan, probaren inguruko informazio fisiologiko zehatzagoa izango genuke eta, horrela, udan zehar egindako lan aerobiko horren ondorio nolakoa izan den hobeto kuantifikatu ahal izango genuke.

Sennior Fitness Test-ean adierazgarria izan den proba bakarra ( $p > 0.001$ ) oreka dinamikoa neurtzen duena da. Horrela, emaitzen arabera adinduen oreka dinamikoa eskasagoa izan zen desentrenamendu osteko neurketetan. Behe gorputz adarreko indarra irabazi edo mantentzeak oreka dinamikoan eraginik ez duela azaltzen duten ikerketak dauden bitartean (Schlicht, et al., 2001),

beste batzuk baieztatzen dute indar eta erresistentziatzko entrenamenduak eginez gero oreka ere hobetzen dela (Buchner, et al., 1997). Era berean, beste autore batzuen arabera ibiltzea bezalako ariketa aerobikoek orekan eragin positiboa dute baina, ez ordea, indar muskularrean (Virág, et al., 2015). Hala ere, Bruin eta lankideen (2007) arabera, oreka dinamikoa hobetzeko indar ariketez gain oreka ariketak ere behar dira. Ikerketa honetan parte hartu zuten adinduek, **1.go Taulan** azaltzen den moduan, entrenamendu saio osoan zehar oreka ariketak egiten zituzten batez ere. Berriz, desentrenamendu aldian batez ere ariketa aerobikoak egiten zituzten, hauek orekaren hobekuntzan parte hartzen ez dutelarik (Woo, et al., 2007). Beraz, esan dezakegu, udan zehar orekaren emaitzak txarrera joan zirela orekarik ez zutelako espezifikoki landu. Hori dela eta, pentsatu dezakegu, haien kabuz udan egiten duten lana ez dela nahikoa zahartzaroan orekan ematen diren aldaketei aurre egiteko. Hots, emaitzen arabera badirudi oreka hobetzeko edo mantentzeko beharrezkoa dela oreka espezifikoki lantzea eta, adibidez, ibiltzea ez dela nahiko oreka mailak mantentzeko. Hori dela eta, gomendagarria litzateke adindu hauei oreka ariketak gomendatzea udan zehar.

Ikerketaren mugen artean aipatzekoa da subjektu kopurua txikia izan zela. Gainera, subjektu guztiak interbentzio taldekoak izan ziren, kontrol talde baten faltan. Bestalde, desentrenamendu edo geldialdian libre utzi zitzairen, hau da, ariketa fisikoa egiten jarraitzen zuten, desentrenamenduaren printzipioak alde batera utziz, eta geldialdiko elikadura ez zen kontutan hartu, garrantzitsua izan litekeelarik. Hau guztia dela eta, etorkizunerako interesgarria izango litzateke, alde batetik, ikerketa honen emaitzak jarduera gidatua egiten ez duten adindu talde batekin konparatzea. Beste alde batetik, benetan desentrenamenduak adinduen funtzionaltasunean duen eragina nolakoa den ikusteko, interesgarria izango zen hiru hilabeteetan zehar haien jarduera ahalik eta gehien murriztea, edota, konparaketa egitea horren aktiboak ez diren adinduekin. Izan ere, orohar, talde honen ezaugarrietariko bat bere adinerako oso aktiboak ziren pertsonak izan zirela izan zen.

## **5. ONDORIOAK**

